



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

AHALDUN NAGUSIAK ADIERAZO DAUENEZ, EZ DAGO BIZKAIKO EKONOMIA MOTELTZEN ARI DALA ERAKUSTEN DAUEN EZELANGO ADIERAZLERIK

- **Unai Rementeriak zerga bidezko diru-bilketaren igoerea eta langabeziaren jaitsierea azpimarratu ditu Gernikan gaur egin dan Kontroleko Osokoan, ez gagozala krisialdiaren aurrean erakusten daben faktoreen artean.**

(Gernikan, 2019ko azaroaren 27an).- Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak gaur adierazo dauenez, “hurrengo krisia noiz helduko dan inork ez dakien arren”, Bizkaian ez dago “krisialdiaren aurrean gagozala erakusten dauen ezelango adierazlerik”. Rementeriak azaldu dauenez, bere tesia oinarritzen daben adierazle garrantzitsu bi dagoz. Alde batetik, aurtengo urrira arteko zerga bidezko diru-bilketan izandako %4ko hazkundera eta, bestetik, langabeziaren murrizketea. Eustaten datuek erakusten dabenez, langabezia %10,4koa zan urte honetako azkenengo hiruhilekoan.

Rementeriak, gaur goizean Gernikan egin dan Kontroleko Osokoan egin ditu balorazino horreek, Elkarrekin Bizkaia taldeak egindako itaunari erantzunez. Eneritz De Madariaga bozeroaleak, egungo egoera arintzeko neurriak eskatu ditu, izan be, “Euskadiko biztanleen %15,2 gizarte bazterketa egoeran dago”. INEren datuen arabera, krisialdia hasi zantetik 46.000 lanpostu galdu dira Bizkaian, De Madariagak gehitu dauenez.

Bizkaiko Ahaldun Nagusiak Amaia Fernández Talde Bereziaren / PP Bizkaiaren bozeroalearen itauna be jaso dau, segurtasun faltaren eta kriminalitatearen igoeraren aurrean hartu beharreko neurrien ganean. Fernándezek hainbat datu emon ditu, horreen artean, urte honetako lehenengo seihilekoan Barakaldon sexu askatasunaren kontrako delituek %70 egin dabela gora. “Segurtasuna Bizkaiko Foru Aldundiaren lehenetako bat da”, adierazo dau Rementeriak, eta, esan dauenez, Bizkaiak 1.000 biztanle bakotxeko 45,8 zigor arau-hausteko tasea dauka, beste herrialde eta uri batzuek daukiena baino askoz txikiagoa.

SAP eta adinbakoak

Bea Ildaria EH Bilduko bozeroaleak, Guraso Alienazinoaren Sindromearen (SAP) gaia ekarri dau Kontroleko Osokora. Bere eretxiz, “iruzurrezko tresna pseudo-zientifiko arriskutsua” da. Aitagaz hartu-emonik gura ez daben adinbakoan kustumia amari kentzeko erabagi batzuk sindrome horretan oinarritzen dira Bizkaian.

Ilardiak, GKE batzuk, Save the childrenek, beste batzuen artean, egindako txostenak aitatu ditu. Txosten horreetan esaten danez, 4 neskatotik batek eta 7 mutikotik batek sexu gehiegikeriak jasaten ditu. Gehienak familia ingurunean izaten dira, eta kasu horreetatik %92a zigor barik geratzen da.

EH Bilduko bozeroaleak sexu gehiegikeriak eta genero indarkeria aitatu ditu, gurasoak banandu eta dibortziau ostean ume batzuek aitagaz hartu-emonik ez izateko hartzen daberen erabagiaren errazoiaren artean.

Sergio Murillo Gizarte Ekintzako Diputatuari egindako itaunean, kustodiak kentzeko orduan SAP edo antzeko terminorik ez erabiltea eskatu dau. Murillok erantzun deutsoenez, "Umeen Zerbitzuan ez da SAP erabilten adinbakoen babesaren inguruko erabagiak hartzeko, ez Euskadin ezta Bizkaian be". Emon dituan datuek erakusten dabenez, 2018an Bizkaian adinbakoen babeserako 1.925 espediente edegi ziran, tutoretzea kentzearen kontrako 20 epaiketetako batean be ez zan Aldundiaren erabagia aldatu beharrik agindu.

Beste gai batzuk

Teresa Laespada, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun diputatuak Talde Bereziak / PP Bizkaia taldeak Bizkaian langabezia murrizteko neurrien ganean aurkeztu dauen ahozko erantzun-eske bati, eta etxerik bako personei emon beharreko arretaren ganeke Elkarrekin Bizkaia taldearen beste bati erantzun deutse. Lehenengo gaiari Laespadak zifrakaz erantzun deutso. Holan, urte honetan, norberaren konturako 1.000 lanpostu sortzea bultzatu da, eta, nabarmendu dauenez, bere Sailak 2020rako dituan aurrekontuek 2,897 milioi euroko partidea aurreikusten dabe enplegua eta ekintzailatza sustatzeko.

"Gure filosofia atzean inor ez iztea da". Holan erantzun deutso Laespadak etxerik bako personeren ganean planteautako bigarren gaiari, eta horren ostean esan dau une honetan 375 personari emoten jakela arreteko egoitzetan, eta beste 750eri eguneko arretako zentroetan.

Elena Unzueta Jasangarritasun eta Ingurumeneko Diputatuak, banda marroiaren izurriteari aurre egiteko hartu diran neurriei buruzko balorazioaren ganean erantzun dau, Elkarrekin Bizkaia eskatuta. Unzueta berbetan, horren eragina jasan daberen 2.133 hektareatan tratamentua egin da, eta basogintzako sektorera laguntzak bideratu dira, pinuetan eragina daukan gaixotasun horren eragina murrizteko.

Tokiko erakundeek Garbikerregaz daukien hitzarmena, Gordexolako pasabide goratuak edo bide-konkorak, Bizkaibusek Termibusen dituan geralekuak eta euskal kulturaren transmisinoa dira EH Bilduk Kontroleko Osokoan planteau dituan beste puntu batzuk.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

EL DIPUTADO GENERAL ASEGURA QUE NO HAY NINGÚN INDICADOR QUE ALERTE SOBRE UNA DESACELERACIÓN ECONÓMICA EN BIZKAIA

- **Unai Rementeria ha destacado el aumento de la recaudación fiscal y el descenso del desempleo como dos factores que muestran que no estamos en la antesala de una crisis en el Pleno de Control celebrado hoy en Gernika.**

(Gernika, a 27 de noviembre de 2019).- El Diputado General de Bizkaia Unai Rementeria ha asegurado hoy que aunque “nadie sabe cuándo vendrá la siguiente crisis”, no hay “ningún indicador en Bizkaia que diga que estamos en la antesala de una crisis”. Rementeria ha explicado que hay dos indicadores importantes que avalan su tesis. Por un lado, el aumento del 4% registrado en la recaudación fiscal hasta octubre de este año y, por otro lado, la reducción progresiva del desempleo que, según datos del Eustat, era del 10,4% en el último trimestre de este año.

Rementeria ha realizado estas valoraciones en el Pleno de Control celebrado esta mañana en Gernika y en respuesta a una interpelación de Elkarrekin Bizkaia. Su portavoz, Eneritz De Madariaga, ha pedido medidas para paliar la situación actual en la que “el 15,2% de la población vasca padece exclusión social”. Según datos del INE, se han perdido desde la crisis 46.000 empleos en Bizkaia, ha añadido De Madariaga.

El Diputado General de Bizkaia ha sido interpelado también por Amaia Fernández, portavoz del Grupo Mixto / PP Bizkaia, sobre las medidas a adoptar frente al incremento de la inseguridad y la criminalidad. Fernández ha aportado varias cifras, como el aumento de un 70% de los delitos contra la libertad sexual en Barakaldo en el primer semestre de este año. “La seguridad es una prioridad de la Diputación Foral de Bizkaia”, ha señalado Rementeria quien ha destacado que Bizkaia cuenta con una tasa de 45,8 infracciones penales por cada 1.000 habitantes, muy por debajo de otros países y ciudades.

SAP y menores

Bea Ilardia, portavoz de EH Bildu, ha traído al Pleno de Control el tema del Síndrome de alienación Parental (SAP) que ha calificado de “instrumento de peligroso fraude pseudoceintífico” en el que se amparan algunas retiradas de custodia a madres de menores en Bizkaia que no quieren relacionarse con su padre.

Ilardia se ha referido a informes de ONG como Save the children que alertan de que 1 de cada 4 niñas y 1 de cada 7 niños sufre abusos sexuales, que la mayoría de ellos se produce en el entorno familiar y que el 92% de estos casos quedan impunes.

La portavoz de EH Bildu ha achacado a los abusos sexuales y también a la violencia de género la negativa de algunos niños y niñas a relacionarse con su padre tras la separación y divorcio de los progenitores.

En su interpelación a Sergio Murillo, Diputado de Acción Social, ha pedido que no se utilice ni el SAP ni ningún término similar para decidir sobre la retirada de las custodias. Murillo ha replicado que “no se utiliza el SAP en el Servicio de Infancia para tomar decisiones de protección de menores ni en Euskadi ni en Bizkaia”. Según los datos que ha aportado, en 2018 en Bizkaia se abrieron 1.925 expedientes de protección a menores y que en ninguno de los 20 juicios de oposición a la retirada de tutela se rectificó la decisión foral.

Otros asuntos

Teresa Laespada, Diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad ha respondido a una pregunta oral de Grupo Mixto /PP Bizkaia sobre medidas para disminuir el paro en Bizkaia y a otra de Elkarrekin Bizkaia sobre la atención a personas sin hogar. A la primera cuestión, Laespada ha contestado con cifras como que en lo que va de año se ha promovido la creación de 1.000 puestos de trabajo por cuenta propia y ha destacado que los presupuestos de su Departamento para 2020 contemplan una partida de 2,897 millones de euros a fomentar el empleo y el emprendimiento.

“Nuestra filosofía es no dejar a nadie atrás”. Así ha respondido Laespada a la segunda cuestión planteada sobre personas sin hogar para asegurar a continuación que actualmente se atiende a 375 personas en centros residenciales y a otras 750 en centros de atención diurna.

Elena Unzueta, Diputada de Sostenibilidad y Medio Ambiente, ha respondido también sobre la valoración de las medias tomadas para atajar la banda marrón a instancia de Elkarrekin Bizkaia. Unzueta ha asegurado que se ha realizado el tratamiento en 2.133 hectáreas afectadas y que se han destinado ayudas al sector forestalista para mitigar el impacto de esta enfermedad que afecta a los pinos.

El convenio de las entidades locales con Garbiker, los resaltes en los badenes de Gordexola, las paradas de Bizkaibus en Termibus y la transmisión de la cultura vasca son otras cuestiones que EH Bildu ha planteado en el Pleno de Control.